

Familia honen barruan zuhaitzak eta zuhaiskak azaltzen dira gehien bat eta batez ere Ipar Hemisferioko lurralde epeletan bantzen dira. Bere baitan 11 genero eta 100 espezie inguru ditu, haue-
tariko bakar batzuk tropikalak edota subtropikalak direlarik. Bestalde, genero honen barruan zenbait espezie ornamentaziorako (*Cornus mas*, *Cornus alba*) erabiltzen dira,

J. Terés



oso estimatuak direlarik.

Cornus generoaren barruan aztertzen ari garen landarea 4 metrorainoko zuhaiska da eta bere

adarrak gorri ilunak eta oso bereziak dira. Hostoak erorkor-
korak, obatuak edo zabalki eliptikoak (4-10 cm), ertzean osoak, txorten luzekoak eta azpialdean zurbilagoak dira, 3-5 nerbio oso nabarmenak dituztelarik.

Loreak, korinbo terminaletan, zuriak eta bereziki maiatza-ekaina bitartean azaltzen dira. Zenbait urtetan udazkenean espezie hau berriro ere loratu egiten dela aipatu nahi dizugu. Fruitua, berriz, drupa esferikoa da, beltz-kolorekoa heldutakoan.

Euskal Herrian arrunta da ia lurralde gehienetan, mendi garaietan izan ezik. Bestalde, hegoaldeko zona lehorretan ureztatutako baratza-bazterretan kokatzen da. Normalean mota desberdinetako baso-mendeletan eta sastrakadi freskoetan azaltzen da, beldien bazterretan eratzten diren hesietan ere arrunta delarik.

Zuhandorren egurra oso gogorra da eta erreminta-kirtententarako erabili izan da. Sendabelar modura erabili ohi da, bere azala eta fruituak astringenteak direla diotelako. Bestalde, hostoek azido salizilikoa dute eta hazien barruko osagaien artean olioia kontuan hartzekoa da. Garai batean argitzeko erabiltzen zen.



* Naturalista


Adar gorriskak dituen zuhaiska: ZUHANDORRA

Joxepo Terés*

FITXA TEKNIKOA

Zuhandorra

Familia:	kornazeoak
Espezia:	<i>Cornus sanguinea</i>
Banaketa:	arrunta
Habitata:	basoak, sastrakadiak eta hesiak
Sendabelarra:	bai



Banaketa ■